# Askuren (San Pedro) Gerra Zibilean

## Askuren (San Pedro) en la Guerra Civil



1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarraren ondoren, euskal lurraldean bi bando zeuden. Arabako iparraldean frontea finkatu zen, eta ondorioz, Urkabustaiz, Urduña eta Lezama (1976an Amurrioko parte izatera pasatuko zena), gerra-eremu bateko normaltasun ezara egokitu behar izan ziren.

Matxinatuen armadak Gorobel mendilerroa kontrolatzen zuen. Aurrez-aurreko kota txiki baina estrategiko hauetatik Arrastariako, Urduñako eta Amurrioko haranak kontrola zitezkeen.

1936. urtearen amaieran, Legutioko batailan, errepublikarrak Urkabustaiztik aurrera egiten saiatu ziren arren, gertu zeuden Iñabarraga eta San Martingo kotak matxinatuen esku geratu ziren. Ondorioz, Uzkiano guda-eremuaren erdian geratu zen.

Hala ere, frontea egonkortu egin zen, eta Bizkaiaren kontrako eraso nagusia hasi zen arte, errepublikarrek Askuren (San Pedro) mendiko posizioei eutsi zieten.

Askuren (San Pedro) Memoria Ibilbideak 1936ko altxamendu militarra pairatu zuten pertsonen duintasuna eta oroimena berreskuratu nahi ditu. Defentsa antolatu zen mendietara bisita eginez, ezagutzera eman nahi da hilabete luzetan gerraren bidegabekeria bizi izan zuten herrien eta tokien historia. Garai hartako pertsonen historia ezagutarazi nahi da, hala frontea euren etxeetara hurbildu zenean leku seguruago baten bila abiatu ziren pertsonen historia, nola euren senide maiteenak erbestera bidali behar izan zituztenena ere.

*Tras la sublevación militar del 18 de julio de 1936, el territorio vasco queda dividido en dos bandos. El frente se establece en el norte de Álava y municipios como Urkabustaiz, Orduña y Lezama (que en 1976 se anexionaría a Amurrio) tuvieron que adaptarse a una situación de anormalidad que genera vivir inmerso en zona de guerra.*

*El ejército franquista controlaba sierra Sálvada, y enfrentadas a la sierra se encontraban estas pequeñas pero estratégicas cotas desde donde se podían controlar los cercanos valles de Arrastaria, Orduña y Amurrio.*

*Aunque durante la batalla de Legutio (Villarreal), a finales de 1936, hubo una intentona de avanzar por Urkabustaiz, las cercanas cotas de Iñabarriaga y San Martín quedaron en manos de los sublevados dejando a Uzkiano en pleno campo de batalla.*

*Sin embargo, el frente se estabilizó y hasta el inicio de la ofensiva contra Bizkaia las posiciones del monte Askuren (San Pedro) se mantuvieron en manos del ejército republicano.*

*El itinerario de la Memoria de Askuren (San Pedro) pretende recuperar la dignidad y la memoria de aquellas personas que sufrieron la sublevación militar de 1936, visitando los montes donde se organizó la defensa y acercándonos a la historia de aquellos pueblos a los que les tocó vivir la injusticia de la guerra; aquellas personas que, acercándose el frente a sus hogares, decidieron partir hacia lugares más seguros o enviar al exilio a sus seres más queridos.*

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria

# Askuren (San Pedro)

## Amurrio . Urduña/Orduña . Urkabustaiz



**1937 maiatza 26 mayo**

# Askuren (San Pedro)

## Fronte-lerroan / en la línea del frente

Martxoaren 31n Bizkaiaren kontrako eraso nagusia hasi zenean, Urduñako frontea nahiko lasaia izan zen eta apirilean zehar ez zen borroka handirik izan. Maiatzaren hasieran Askuren (San Pedro) mendiko batailoien erreleboa eman zen: 1936. urte bukaeratik ordura arte kokapen haietan egondako Araba (EAJ), Leandro Carro (PCE) eta Bakunin (CNT) batailoiak Bizkargi eta Sollube mendietako fronte "beroetara" bidali zituzten. Paraje hauetako defentsak Bermeo aldetik zetozen Karl Liebknecht (PCE), Meabe-1 (UGT), UGT-8 eta ANV-1 batailoiek okupatu zituzten.

***"Maiatzaren 26an San Pedro, Sobrehayas eta Txibiarte mendietatik atera gintuzten. 9:00ak aldera, aireko bonbardaketak eta artilleriak Askurengo posizioan zeuden hormigoizko bi metrailadoreentzako habiak suntsitu zituzten"***
**P. Beldarrain**

Askuren (San Pedro) mendiko posizioek ez zuten eremua defendatzeko baliabide nahikorik eta heldu berriak ziren batailoiek ezer gutxi egin ahal izan zuten erasoari aurre egiteko.

*Iniciada la ofensiva general contra Bizkaia el 31 de marzo, el sector de Orduña no presentó grandes enfrentamientos en el mes de abril. A principios de mayo se produce un relevo importante y la guarnición del monte Askuren (San Pedro) formada por los batallones Araba (PNV), Leandro Carro (PCE) y Bakunin (CNT), los mismos que desde finales de 1936 hasta la fecha se habían encargado de fortificar las posiciones de Askuren (San Pedro) y Txibiarte, fueron entonces destinados a los frentes calientes entre Sollube y Bizkargi. Sus defensas fueron entonces ocupadas por los batallones Karl Liebknecht (PCE), Meabe-1 (UGT), UGT-8 y ANV-1, provenientes de Bermeo.*

***"El día 26 de mayo nos desalojaron de las alturas de San Pedro, Sobrehayas y Txibiarte. Sobre las nueve horas, unas pasadas de bombardeo aéreo y artillería acertaron a destruir los dos nidos de hormigón en la posición San Pedro"***
**P. Beldarrain**

*Las posiciones de Askuren (San Pedro) no contaban con armamento suficiente para una buena defensa del espacio y los nuevos batallones poco pudieron hacer para hacer frente a aquella gran ofensiva.*

Fronte-lerroa 1937ko martxoaren 31ra arte.

*La línea del frente hasta el 31 de marzo de 1937.*




Urduñako sektorearen mapa, Araba batailoiak 1937ko apirilean egina (AGMA).

*Mapa del sector de Orduña, realizado por el batallón Araba en abril de 1937 (AGMA).*






# Frontean ari zen CNTko erreportari baten kronika

## *Crónicas de una reportera de la CNT en el frente*


REPORTAJES DE C. N. T.

## - Cecilia G. de Guilarte -

1937ko otsailaren 2an, CNT del Norte-n Cecilia G. de Guilartek idatzitako erreportaia.

*Reportaje de Cecilia G. de Guilarte. CNT del Norte. 2 de febrero de 1937.*

1937ko otsailaren 2an, Cecilia G. de Guilartek, CNT del Norte egunkariko erreportari gazteak, Askuren (San Pedro) mendiko frontea bisitatu zuen. Txibiarte mendian zeuden Bakunin batailoiko miliziarrei buruzko erreportaje zabala idaztea zuen helburu.

Lezamatik igo ziren eta errepublikarren posizio desberdinak bisitatu zituzten, fusilen eta morteroen etengabeko tiro txistupean.

*El 2 de febrero de 1937, Cecilia G. de Guilarte, joven reportera del periódico CNT del Norte, visitó el frente de Askuren (San Pedro) para redactar un amplio reportaje sobre los milicianos del batallón Bakunin en el cercano monte de Txibiarte.*

*Ascendieron a la zona desde Lezama y visitaron las diferentes posiciones republicanas, bajo el constante silbido de los disparos de fusilería y morteros de ambos bandos.*

***- ¿Lleváis mucho tiempo en este frente?***

***- Sí, tanto que perdimos ya la cuenta. Creo que pasamos ya de los 4 meses.***

***- Desearéis el relevo ya ¿no?***

***- No lo creas. Hemos trabajado firme y aun cuando recordamos los primeros días de lluvia y frío, sin caminos ni refugios, vamos tomando cariño a estas primitivas comodidades que tanto trabajo nos costaron y no tenemos demasiada prisa para marchar. (...) Oye, no pongas nada de bajas, que pueden asustarse las familias.***

# Ondarea ikertzea eta dagokion garrantzia ematea helburu

## Objetivo: Investigación y puesta en valor del patrimonio

Boluntario eta erakundeen borondate eta lanari esker, ahanzturatik berreskuratzen ari dira gure lurraldearen defentsan biziki garrantzitsuak izan ziren lekuak. Defentsa sistema horietan gertatutakoa ikertuz eta balioan jarriz, Euskadiko gerraren azken egunetara arte askatasuna defendatu zutenen memoria berreskuratu nahi da.

2016an Askuren (San Pedro) mendian lehen indusketak egin zirenetik, asko izan dira egindako aurkikuntzak. Horiei esker mendi hauetan zehar eraiki ziren defentsak aurkitu eta ezagutzera eman ahal izan dira.

*Gracias a la labor de muchas personas voluntarias y de distintas instituciones, son muchos los lugares que se están rescatando del olvido, enclaves que fueron fundamentales en la defensa de nuestro territorio. Investigando y dando a conocer los acontecimientos de cada uno de estos espacios, se pretende recuperar la memoria de las personas que defendieron la libertad hasta los últimos días de la guerra en Euskadi.*

*Desde que en el 2016 se llevaran a cabo las primeras excavaciones en el monte Askuren (San Pedro), han sido muchos los hallazgos descubiertos, que han ido permitiendo descubrir y dar a conocer las defensas que ocuparon estos montes.*

Argazkiak: © EHU / UPV. Equipo de excavación arqueológica









Aurkitutako objektuetako batzuek (kopak, mahai-tresnak, sendagaiak, prentsa, txanponak...) lubakietako egunerokotasunari buruzko informazioa ematen digute.

2017an hirugarren gotorlekuan egindako indusketetan Euzkadi egunkariaren zatitxo bat aurkitu zen. Irakur zitezkeen hitz bakanetako batzuk Gernikako bonbardaketari buruzkoak ziren, baita Larraurin izan zen beste bonbardaketa baten ondorioz hil ziren ume batzuen heriotzari buruzkoak ere. Berba haiei esker, data jarri ahal izan zitzaion egunkariari.



*Algunos de los objetos encontrados corresponden al día a día en las trincheras (copas, cubiertos, medicamentos, prensa, monedas ...).*

*En las excavaciones llevadas a cabo en el tercer fortín del 2017, se encontró un fragmento del periódico Euzkadi. Algunas de las pocas palabras legibles que el periódico conservaba se hacían eco del bombardeo de Gernika y de la muerte de unos niños en un bombardeo en Larrauri, facilitando su datación.*

# Bizi behar izan zutena

## Lo que les tocó vivir

1936ko uztailean hasi zen gerrak hainbat pertsonen bizitza aldarazi zuen. Gehienetan gerrak elkar maite duten pertsonak banatu zituen, baina kasu batzuetan elkartu egin zituen. Mateo Balbuena milizianoaren eta Consuelo Lopetegi andereñoaren kasua izan zen. Gerran Amurrion elkar ezagutu zuten. Mateo ideal komunisten alde borrokatu zen bere bizitza osoan, eta Askurengo frontea eraikitzen eta defendatzen aritu zen.

Consuelori, berriz, gerraren atzeguardia bizitzea tokatu zitzaion eta, besteak beste, errefuxiatuak artatzen aritu zen.

Batzuetan indusketetan aurkitzen diren objektuek 1937an desagertutako pertsonen historia azaleratzen dute. 2018an Manuel Mogrovejoren identifikazio txapa aurkitu zen. Hari esker Leandro Carro batailoiko miliziar gaztearen hitoria berreskuratu ahal izan zen.



"Miliciano Manuel Mogrobejo"

*La guerra cambió las vidas de las personas desde aquel día de julio de 1936. Separó en muchos casos a la gente de sus seres queridos, pero en otros, los unió. Este es el caso del miliciano Mateo Balbuena y la maestra Consuelo Lopetegi, que se conocieron en Amurrio. Mateo fortificó y defendió el frente de Askuren (San Pedro), dedicando su vida a sus ideales comunistas.*

*Mientras, a Consuelo le tocó vivir la crudeza de la Guerra en la retaguardia, donde trabajó, entre otros, en los servicios de atención a las personas refugiadas.*

*Los objetos que en ocasiones se encuentran en las excavaciones, suelen sacar a la luz historias de personas cuyas pistas se perdieron en 1937. En 2018 se encontró la chapa de Manuel Mogrovejo, gracias a la que fue repuperada su peculiar historia.*




# Memoria ibilbideak

## Itinerarios de la Memoria

Memoria ibilbideei esker, Gerra Zibileko gertakari eta tokietara hurbil gaitezke seinaleztatutako ibilbideen bitartez. Gertakari haiek, euren lekuko izan ziren pertsonen oroimenean bizirik irauten badute ere, askotan erabat ezezagunak dira belaunaldi berrientzat. Horregatik, toki horiek balioetsiz, Euskadiren memoria demokratikoa berreskuratu nahi da, eta lubakiak eraikitzen eta defendatzen parte hartu zuten milaka laguni omenaldia egin ere.

*Los Itinerarios de la Memoria permiten acercarnos mediante recorridos señalizados a aquellos acontecimientos y lugares de la Guerra Civil que, si bien perduran en la memoria de las personas que los vivieron, resultan, a menudo, desconocidos para las nuevas generaciones. Al mismo tiempo, con la revalorización de estos espacios se pretende recuperar la memoria democrática de Euskadi y recordar a las miles de personas que participaron en la construcción y la defensa de estos espacios.*





## Askuren (San Pedro) Memoria ibilbidea

### Itinerario de la Memoria de Askuren (San Pedro)

Askuren (San Pedro) Memoriaren ibilbidea egitera gonbidatzen zaituztegu. 4,4 km-ko mendi-ibilbidea da (joan-etorria), eta Uzkianoko aparkalekutik abiatuta, aldapa handirik gabe, Askuren (San Pedro) mendi hurbilera igotzeko aukera ematen digu.

Errepublikarrek Txibiarte eta Askuren (San Pedro) mendiak gotortu zituzten, matxinatuek Iñabarraga, San Martin eta Larrabaltzatik zuzentzen zuten erasotik defendatzeko. Kota horiek guztiek duela 80 urte baino gehiago eraikitako defentsen hondarrak gordetzen dituzte oraindik.




*Os invitamos a recorrer el itinerario de la Memoria de Askuren (San Pedro), un recorrido montañero de 4,4 km (ida y vuelta) que partiendo del aparcamiento de Uzkiano nos permite ascender, sin grandes pendientes, a la cercana cota del monte Askuren (San Pedro).*

*Las alturas de Txibiarte y Askuren (San Pedro) fueron fortificadas por el bando republicano para defender el ataque que los sublevados realizaban desde las cercanas cotas de Iñabarraga, San Martin y el alto de Uzkiano. Todas estas cotas conservan algún resto de las defensas construidas hace más de 80 años.*

Gure lurraldean Gerra Zibileko gertakariak bizi behar izan zituzten pertsonen omenez, gune hauen defentsan parte hartu zutenen omenez eta gure lurraldean beraien bizitza zein gehien maite zituzten pertsonena babesteko leku bat bilatu zutenen omenez.

Memoria ibilbideak
Itinerarios de la Memoria

En memoria de aquellas personas que sufrieron los acontecimientos de la Guerra Civil, aquellas que participaron en la defensa de estos espacios, así como las que buscaron en nuestro territorio un lugar donde proteger su vida y la de sus seres queridos.